



# ikastolak



## PAZ DE ZIGANDA IKASTOLA ATARRABIA



Ikastaroko partaideetako batzuk: Maider, Amaia, Arantxa, Ane, Irati, Irupe, Maider, Ainara eta Uxue.

# Aisialdirako hezitzaileak euskaraz hezten

NAFARROAN LEHENBIZIKOZ, BI IKASLE TALDE MODU TEORIKO ETA PRAKTIKOAN ETORKIZUNEN HEZITZAILE IZATEKO LANETAN ARI DIRA

Testua eta argazkia Paz de Ziganda Ikastola

**H**aur eta Gazteen Aisialdirako Jardueren Dinamizazioa ikastaroa Ikastolen Elkartek sustatutako AISIOLA eskolaren barne kokatzen da. Eremu teoriko eta praktikoa duen ikastaroa da. Ikasleei heziketa integral bat eskaintzeaz gain, xede nagusia aisialdiko esparrua euskalduntzea da. Urrian hasi zuten ibilbidea Paz de Ziganda Ikastolako eta San Fermín Ikastolako ikasleek osatzen duten taldeek.

Ikastaroak aisialdian euskararen presentzia bermatzea eta indartzea du helburu. Bestetik, hezitzaile gaiek aisialdi heziketaren planteamendu hezitzaile, pedagogiko eta metodologikoak ezagutzea. Hirugarrenik, haur eta gazteei zuzendutako aisialdiko ekimenak aurrera ateratzeko eta talde zein elkartek dinamizatzeko ezagupen teoriko eta baliabide praktikoak ezagutzea. Baita begirale taldeetan garatzen den heziketa estiloa eta izaera bizitzea ere.

**HEZKUNTZA AKTIBOA** Metodologiari begiratu, ikastaroak hezkuntza aktiboa du oinarri. Hori horrela, motibazioan, bizipen sistematikoan, esperientziatik ikastea eta ekintza-hausnarketa-ekintza dinamikan dihardute. "Aisiolan argi dugu Hezkuntza prozesua ez dela soilik ikuspuntu akademizista batetik begiratu behar, elementu ugari parte hartzen dute eta. Aisialdia ez da isolatua dagoen zerbait, gazte eta hauraren hezkuntza prozesuaren beste atal bat da, pertsonen garapena gehien ahalbideratzen duen denbora tartea. Horregatik, aisialdiko hezkuntzak Ikastoletan behar duen garrantzia dauka", dio Iraultza Urrutia Aisiola Begirale Eskolako arduradunak.

Arlo pedagogikoari dagokionez, ikastaroaren aldi teorikoak hiru modulu barneratzen ditu eta gai hauek biltzen dituzte: talde dinami-

ka, legedia, antzerkia, kudeaketa, sormena, soziologia, programazioa, hezikidetzatza, euskara suspertzailea, inklusioa, heziketa astialdian, lehen sorospenak, euskal jolasak, psikologia ebolutiboa, naturaren pedagogia. Bestalde, praktikak egiteko lekuak, ugariak dira: udalekuak, udaleku irekiak, Ikastolako gelaz kanpoko eremuan, ludoteketan eta aisialdi elkartean.

"Paz de Zigandan burutzen ari garen ikastaroa, Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuak homologatuta eta araututa dago, eta ikastaroa amaitzean, Europar Batasun osoan balioa izango duen Haur eta Gazteen Aisialdirako Jardueren Dinamizazioa izeneko 2. mailako Gaitasun Ziertagiria titulu ofiziala jasoko dute ikasleek", ziurtatu du Urrutiak.

**AISIOLA, ESKOLA AISIOLA** Ikastolen Elkartean hezkuntza ikuspegi oinarritzen da. Proiektu hezitzaile eta euskalduna da. Aisialdian oinarritutako kalitatezko hezkuntza proiektua da, baloreetan oinarritutako proiektu hezitzaile integrala. Horrela, ikastoletako aisialdiko proiektu hezitzaileak are gehiago aberasteko atea zabaltzen du, heziketa integralaren bidean pausu kualitatibo garrantzitsu bat emanez.

Horrela argitu du Iraultza Urrutiak: "Haur eta gazteen heziketan parte hartzen dugu eta parte hartu nahi dugu: Giza balore eta gaitasunak hezten ditugu, pertsonak bezala erantzukizunak hartzeko gai izateko, aisialdiaren erabilera erakitzeko egiten dugu, eraldatzaileak; formazio euskaldunean hezi nahi ditugu, aniztasunean, elkarbizitza eta errespetu osoarekin; eta jarrerak lantzen ditugu: talde lana, elkarriketa, enpatia, parte hartzea, kooperazioa, elkartasuna...". Informazio gehiago: [www.aisialdia.eus](http://www.aisialdia.eus).

## INKESTA

### ZER IRUDITZEN ZAIE AISIOLA GURE IKASLEEI?

#### OIHANE ARANGUREN

Zergatik animatu zinen ikastaroa egitera? Betidanik hurrekin nahiz gazteekin egoteak asko erakarri nau. Magisteritza ikasteko ideia buruan nuen eta formakuntza hau lehen pausoa emateko beharrezkoa iruditu zitzaidan. Batez ere, hau benetan gustukoa dudana edo ez argitzeko. Beraz, Aisiolak ikastolarekin batera emandako aukera paregabea zela iruditu zitzaidan, mundu honetan sartzen has-teko.

#### PATXI LARRALDE

Zer da formakuntza honetan gehien gustatzen zaizuna? Hasteko, klaseak era entretenigarria batean ematen dira, eta ez dena teoria. Horrek egiten du klaseak arinagoak egitea. Gainera, beste ikastoletako jendea etortzen da eta horiekin harremana izaten hasi gara. Hortaz aparte, etortzen diren irakasleek hainbat egoerari nola aurre egin azaltzen digute, adibidez, arazo bereziak dituen ume batekin.

#### AINARA GARNICA

Etorkizunean formakuntza horretaz baliatzeko asmoa duzu? Zein esparrutan? Bai, zailtzarrik gabe. Hasteko, etorkizunean ikastolaren batean irakasle moduan lan egitea gustatuko litzaidake eta gero egingo ditudan ikasketetan uste dut horretarako oso baliagarriak diren hainbat gauza erakutsi dizkidala. Horrez gain, irakaskuntza modua ez den beste alderdi batzuetarako ere balio izan dit, adibi-


dez, behar bereziak dituzten haurrak laguntzeko prest nagoela uste dut. Baina lanbide bat aurkitzeko formatzea baino harago, pertsona bezala ere izugarri erakutsi dit, pertsona ezberdinekin egotea edota diskriminazioari aurre egitea bezalako kontuak ikastean bizitzan ezinbestekoak diren baloreetan sakontzen dugulako, eta horiek ahazten ez diren ikasgaiak dira.

#### LEHIAKETARAKO GALDERAK

1. Metodologiari begiratu, zein hezkuntza modu du oinarri ikastaroak?
2. Non egin ahal izango dituzte praktikak ikasleek?
3. Zein motatako proiektua da Aisiola? Bidali zuen erantzunak [nie03@ikastola.eus](mailto:nie03@ikastola.eus) helbidera, zure izen-abizenak, helbidea, telefono zenbakia eta ikastolaren izenarekin batera.

#### IRABAZLEAK

OINEZ BALEA (1): Leire Aramendia (Jaso Ikastola).  
OINEZ BALEA (2): Ekaitz Baigorri (Ibaialde Ikastola).  
INTER-SPORT IRABIA (baloia):  
Urlei Etxandi (Baztan Ikastola).



Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatzen dena betez, zure datu pertsonalak ZOZKETA fitxategian sartuta daudela eta horren helburua erakundeak antolatutako zozketak kudeatzea dela jakinarazten dizugu. Fitxategia Datuak Babesteko Agentzian aitor-tu dugu eta datuen segurtasuna bermatzeko neurriak ezarri ditugu.